



Eusko Legebiltzarraren ordezkariak batek bidaia egingo du Norvegia eta Finlandiara, Berdintasunerako Defentsoriak hurbiletik ezagutzeko

- Eusko Legebiltzarreko Emakume eta Gazteria Batzordeko legebiltzarkideak Norvegia eta Finlandiara joango dira EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzaile Maite Erro andrearekin, herrialde horietako Berdintasunerako Defentsoriak hurbiletik ezagutzeko.
- Europako iparraldeko Berdintasunerako Defentsoriek, bertako Berdintasunari buruzko Legeek bezalaxe, 20 urtetik gorako esperientzia dute.

Norvegia eta Finlandia erreferentzia gisa hartzen dira berdintasunaren alorrean, mundu mailan aitzindariak diren politikak dituztelako, Munduko Ekonomia Foroaren 2007ko Txostenak ematen dituen datuek egiaztatzen dutenez. Txosten horrek emakumeen eta gizonen arteko genero-aldea hainbat arlotan aztertzen du, ekonomian edo politikan, adibidez, eta Norvegia eta Finlandia bigarren eta hirugarren tokian jartzen ditu, hurrenez-hurren.

Euskal ordezkariak honako hauek osatuko dute: Ane Auzmendi, batzordeko presidentea, Gema González de Txabari (Euzko Abertzaleak), Esozi Leturiondo (Euskal Sozialistak), Laura Garrido (Euskal Talde Popularra), Katalin de Madariaga (Ezker Abertzalea) eta Kontxi Bilbao (Talde Mistoa-Ezker Batua Berdeak).

Euskal ordezkariak Oslo eta Helsinkira joango da, eta bertan Norvegiako Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Defentsoriaren eta Finlandiako Berdintasunerako Defentsoriaren ordezkariak harrera egingo diete. Norvegiako Berdintasunerako Defendatzaile Ingebor Grimsmor andreak eta Finlandiako Berdintasunerako Defendatzaile Pirkko Mäkinen andreak Defentsorien jatorria, garapena, funtzionamendua eta erregulazioa aurkeztuko dizkiete euskal legebiltzarkideei.

Defentsorien berezko funtzionamenduaz gain, legebiltzarkideek hurbiletik ezagutu ahal izango dute Norvegiako eta Finlandiako berdintasunaren alorreko legeria, baita Norvegiak eta Finlandiak berdintasuna sustatzeko bultzatu dituzten politikak, enpresetan berdintasuna sustatzeko mekanismoak edo estatuak berdintasun-politikak sustatzeko bideratzen dituen baliabideak ere.



Norvegia eta Finlandiako legeriaren alderdi interesgarriak

Norvegia:

- Genero-indarkeriak hiru alderdi biltzen ditu Norvegiako ordenamenduan: emakumeei egindako eraso fisiko eta psikologikoak; prostituzioa eta emakumeen sexu-esplotazioa; eta indarkeria ekonomikoa, enpleguan sartzeko, ordaintzeko edo mailaz igotzeko diskriminazioaren ondorioz.
- Legez, Norvegian enpresa berri bat ezarri nahi bada gizonen eta emakumeen osaera paritarioa izan behar du zuzendaritzako postuetan, hala enpresa pribatuetan nahiz publikoetan.
- Norvegiako legeriak aitak inplikatzeko seme-alaben zaintzan, guraso-baimen baten bitartez; baimen hori eskubide indibidual bezala gauzatzen da, eta eskualdeazina da. Horren arabera, aitak ez badu eskubide hori gauzatzen, galdu egiten du.

Norvegiako Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Defentsoria: www.ldo.no

Finlandia:

- Legeek berdintasuna aktiboki sustatzeko xedapenak barne hartzen dituzte. Esate baterako, agintariak eta enpresaburuak berdintasuna sustatzera behartuta daude, helburu jakin batzuekin eta plangintza bati jarraituz.
- Bi sexuetako % 40ko kuota ezarrita dago gobernuko batzordeetan, kontsulta-organoetan eta antzekoetan.
- Iraunkorki 30 langile baino gehiago dituen enpresa orok bere urteko kontratazio-planean, prestakuntzan eta lan-segurtasuneko programan lantokian berdintasun handiagoaren aldeko neurri aktiboak barne hartu behar ditu. Enpresa, era berean, gizonei eta emakumeei lana eta familia uztartzen laguntzera behartuta dago.
- Legeak sexu-jazarpenari buruzko kapitulu bat ere badu. Berdintasuna sustatzeko, enpresak ahal duen neurrian ziurtatu behar du langile bakar bat ere ez dela sexu-jazarpenaren biktima izango. Ez badu betebeharrak hori betetzen, buruzagia diskriminazio-jarreraz akusatua izan daiteke.

Finlandiako Berdintasunerako Defentsoria: www.tasa-arvo.fi



Una delegación del Parlamento Vasco viaja a Noruega y Finlandia para conocer de cerca las Defensorías para la Igualdad

- Parlamentarias de la Comisión de Mujer y Juventud del Parlamento Vasco, se trasladarán a Noruega y Finlandia con la Defensora para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la CAE, Maite Erro, para conocer de cerca las Defensorías para la Igualdad de estos países.
- Las Defensorías para la Igualdad del norte de Europa, al igual que sus respectivas Leyes de Igualdad, acumulan más de 20 años de experiencia.

Noruega y Finlandia son países referentes en materia de igualdad, con unas políticas pioneras a nivel mundial, tal y como lo atestiguan los datos que se desprenden del Informe del Foro Económico Mundial 2007. Dicho informe analiza la brecha de género entre mujeres y hombres en áreas como la economía o la política, y sitúa a Noruega y Finlandia en el segundo y tercer puesto respectivamente.

La delegación vasca estará encabezada por Ane Auzmendi, presidenta de la comisión, Gema González de Txabarri (Nacionalistas Vascos), Esozi Leturiondo (Socialistas Vascos), Laura Garrido (Populares Vascos), Katalin de Madariaga (Ezker Abertzalea) y Kontxi Bilbao (Grupo Mixto- Ezker Batuak Berdeak).

La representación vasca se trasladará a Oslo y Helsinki, donde será recibida por representantes de la Defensoría para la Igualdad y Antidiscriminación de Noruega y la Defensoría para la Igualdad de Finlandia. Ingebor Grimsmor, Defensora de Igualdad de Noruega y Pirkko Mäkinen Defensora de Igualdad de Finlandia presentarán a las parlamentarias el origen, desarrollo, funcionamiento y regulación de las Defensorías.

Además del funcionamiento propio de las Defensorías, las parlamentarias podrán conocer de primera mano la legislación noruega y finlandesa en materia de igualdad, así como las políticas impulsadas por Noruega y Finlandia para promover la igualdad, los mecanismos para impulsar la igualdad en las empresas o los recursos que el estado destina para impulsar las políticas de igualdad.



Aspectos interesantes de la legislación de Noruega y Finlandia

Noruega:

- La violencia de género abarca tres aspectos en el ordenamiento noruego: las agresiones físicas y psicológicas a las mujeres; la prostitución y la explotación sexual a las mujeres; y la violencia económica, derivada de la discriminación en el acceso, retribución o promoción en el empleo.
- Por ley, la instalación de una nueva empresa en Noruega exige una composición paritaria de hombres y mujeres en sus puestos de dirección, tanto en las empresas privadas como públicas.
- La legislación noruega implica a los padres en el cuidado de los hijos e hijas, a través de un permiso parental, que se articula como un derecho individual, y que es intransferible. Esto significa que si el padre no ejerce ese derecho, lo pierde.

Defensoría para la Igualdad y Antidiscriminación de Noruega: www.ldo.no

Finlandia:

- Las leyes contemplan disposiciones para el fomento activo de la igualdad. A modo de ejemplo, las autoridades y el empresariado están obligados a fomentar la igualdad con objetivos concretos y de forma planificada.
- Se establece una cuota del 40% de ambos sexos en comisiones gubernamentales, organismos consultivos y otros de carácter análogo.
- Toda empresa que emplee de modo permanente a más de 30 personas deberá incluir en su plan anual de contratación, formación y en su programa de seguridad laboral medidas activas a favor de una mayor igualdad en el lugar de trabajo. También se obliga a la empresa a que ayude a hombres y mujeres a conciliar su vida laboral y familiar.
- La Ley también reserva un capítulo al acoso sexual. Para promover la igualdad, la empresa debe, en la medida de lo posible, asegurarse de que ninguna empleada es víctima de acoso sexual. Si no cumple con esta obligación el jefe o la jefa puede verse acusado de actitud discriminatoria.

Defensoría para la Igualdad de Finlandia: www.tasa-arvo.fi